

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko apirilaren 16an hartutako erabakiaren laburpena: erabaki horren bidez, Gasteizen 45 urtetik gorakoentzat enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdi publikoa eta haren oinarriak onesten dira 2025 ekitaldirako

BDNS(Identif.): 831672.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/831672>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehena. Onuradunak

Diruz lagun daitezkeen jarduerak Vitoria-Gasteizko udalerriko lantoki batean garatzen dituzten enpresa edo entitateak, edozein delarik ere haien forma juridikoa, baldin eta Vitoria-Gasteizen erroldatutako 45 urteko edo gehiagoko pertsonen aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzen badituzte, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako (lanaldiaren ehuneko berrogeita hamarrerako, gutxienez) 2024ko irailaren 16tik hasita eta gehienez eskabideak aurkezteko epea bukatu arte (2025eko irailaren 15a), bi egun horiek barne.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian kontratazio mugagabea eta enpleguaren egonkortasuna (lanaldi osokoa zein partzialekoa) sustatzeko laguntzak ematea.

Laguntzak emango dira Vitoria-Gasteizko udalerriko lantegietan 45 urte edo gehiago duten pertsonen aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko (den lanaldi osorako edo partzialerako, eta partzialerako bada, gutxienez lanaldiaren ehuneko 50erako).

Gehienez hiru kontratu aldi baterako bihurtu ahalko dira mugagabe enpresako edo entitateko, eta hori da gehienez ere eman ahalko den dirulaguntza-kopurua. Betiere, kasu guztietan bete beharko dira ezarritako betebeharrak eta baldintzak.

2024ko irailaren 16an hasi eta luzeenez eskabideak aurkezteko epea amaitu arte (2025eko irailaren 15a) mugagabe bihurtzen diren kontratuak lagundu ahalko dira diruz (bi egun horiek barne direla).

Diruz lagun daitezkeen ekintza horien ondorioz sortutako kontratu mugagabea 12 hilabetez mantendu beharko da.

Lehia bidezko konkurrentziaren prozedura baliatuko da deialdia ebazteko.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udalbatzak, 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari, zeina azkenean Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratu baitzen, 2023ko uztailaren 28an (ostirala), 88. zenbakian, eta 2023ko urriaren 1ean sartu baitzen indarrean. Ordenantzaren xedea da Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2025eko apirilaren 16an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko ekitaldian Vitoria-Gasteizko udalerrian 45 urtetik gorakoentzat enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak 2025eko ekitaldirako.

Bata eta bestea Udalaren webgunean ikus daitezke, bai eta herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 600.000,00 euroko zuzkidura du, 2025erako onetsitako udal aurrekontuko 0823.2411.489.67 partidaren kontura Enplegua egonkortzeko kontratuetarako laguntzak. Aldi baterako kontratua lanaldi osoko kontratu mugagabe bihurtzeak dakartzan urteko soldata-kostuen ehuneko 50 (urteko soldata gordina eta enpresaren kontura diren Gizarte Segurantzaren kostuak) izanik dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, eta kontratuko gehienez 10.000,00 euro delarik muga, eta, lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dagokion zati proportzionala (diruz lagundu ahal den gutxieneko lanaldia ehuneko 50 da).

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasi eta 2025eko irailaren 15ean amaituko da (bi egun horiek barne).

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 6a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saila Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ